

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

129/2018 Foru Agindua, martxoaren 14koa. Honen bidez 2,6618 hektareako "Ostuño Parkeko konplexua" eremuaren okupazioa erregularizatzen duen administrazio-emakida Urkabistaizko Udalaren alde onartzen duena, Izarra herriarena den 89. zenbakidun OPMan, "El Corral eta La Calzadako gaina" deritzonean, kokatua

Urkabustaizko Udalak egindako eskaerak ikusi dira, 2017ko azaroaren 16an eta 2017ko abenduaren 29an egindakoak. Haietan, Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuari eskatu zizkion, horrenez hurren, ziurtagiria, titulartasun juridikoaren aldaketa batengatik Ostuño parkeak Arabako Lurralde Historikoko Onura Publikoko Mendien Katalogoan agertzeari utzi ziona ziurtatzen duena eta, bestetik, "Ostuño Parkeko konplexua"ren 2,66 hektareetan azalera eskubide bat eratzeko baimena, mendi osoaren edo aipatu zatiaren erpin georeferentziatuen planoarekin batera.

Urkabustaizko Udalak prestatutako erantsitako dokumentazioa, eskaera horiei lotutakoa, jaso da.

Urkabustaizko Udaleko udal arkitekto-aholkulariaren txostenak, 2018ko urtarrilaren 21ekoa eta 2018ko urtarrilaren 31koa, hurrenez hurren, kontuan hartu dira.

Ostuño parkea Izarra herriarena den 89. zenbakidun "El Corral eta La Calzadako gaina" izeneko OPMko lurretan eraikita daude, Arabako Onura Publikoko Mendien Katalogoan sartuta dagoen mendian, hura behin betiko onartu zenetik, Sustapen Ministerioaren 1909ko maiatzaren 5eko Errege Aginduaren bidez.

Mendi Zerbitzuak izapidetutako lotutako espediente guztiak ikusi eta bategin dira goiburuko gaiari buruz ebazteko. Halaber, haiek osatzen dituzten agiriak ikusi dira eta, bereziki, Mendi Zerbitzuaren 2018ko otsailaren 21eko txostena hartu da kontuan, zeinean uste baita Ostuño parkearen egungo erabilera bateragarria dela mendia kalifikatzen duen onura publikoarekin.

Izarra herrian dagoen Ostuño parke horretan, Urkabustarizko udalerrian, konplexu bat dago, aisialdi eta kirol instalazio batzuk dauzkana (taberna eta aldagelak, igerilekuak, futbol zelaia, tenis pista, erretegiak eta haur jolasak) eta, gainera, atsedenguneak daude, arboladurak. "Ostuño udal igerileku eta aldagelak" obra 1985ean egin zen, Izarrako administrazio batzordearen jabetzakoa den lur batean, eta igerilekuak eta aldagelak guztiz eraberritzeko azken obra bat egin da osorik 2016 eta 2017 bitartean.

Urkabustaizko Udalak azken 30 urteetan igerilekuak eraikitzeke jasotako dirulaguntzen historia ezagutzen da.

1985erako bi hamarkada baino gehiago ziren instalazio horiek erabiltzen zirela eta, erabilera hori legezatu eta instalazio berriak egiteko eta zeudenak eraberritu eta hobetzeko, Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuetarako Foru Planean sartu zen. Halaber, Izartzako Kontzejuaren 1985eko martxoaren 8ko erabakiaren bidez, zeina 1986ko urtarrilaren 16an behin betiko ebatzita geratu baitzen, espediente bat hasi zen. Espediente horretan Izarrako kontzejuak hura bultzatu zuen, Ostuño parkearen kalifikazioa aldatzeko.

Oinarri hartu da, Mendi Zerbitzuaren 2018ko otsailaren 21eko txostenean jasota dagoenez, 89. zenbakidun Onura Publikoko Mendi horrek (aurrerantzean OPM), katalogoan sartu zenetik,

ez duela desfektaziorik jasan, foru administrazio honen ondorioetarako, katalogatutako mendi hori osatzen duten lur guztien edo batzuen OPM izate hori aldatzen duenik.

Ostuñoko parkearen zatiari lotutako administrazio aurrekariak aztertu dira, Arabako Foru Aldundi honen Mendi Zerbitzuak izapidetutakoak, eta haietatik ondorioztatzen da Mendi Zerbitzuak kontrako txostena egin duela, bai lur hori hiri lur finkatu gisa sartzeari, bai zati hori Onura Publikoko Mendien Katalogotik ateratzeari dagokionez.

Kontuan hartu da martxoaren 11/2007 Foru Arauak, Arabako Mendiei buruzkoak, 24. artikuluan, xedatzen duela mendi katalogatu baten zati bat okupatzeko foru aldundian mendien arloan eskudun den sailaren administrazio emakida behar dela; lege manu horrek MFA hori indarrean jarri aurreko okupazioei ere eragiten die, azaroaren 21eko 43/2003 Legeak eta apirilaren 28ko 10/2006 Legeak, Mendien Legeak, zortasuna eta jabari publikoko mendiei eragiten dieten besta zerga batzuk berrikusteari buruz lehenengo xedapen iragankorrean jasotakoa kontuan hartuta.

Mendi Zerbitzuaren txostenean arrazoituta frogatu da baso jabari publikoan okupazio edo erabilera pribatibo bat erregularizatzeko izapide daitekeen figura bakarra, zein ere den haren izaera, administrazio emakida dela.

Uste da Urkabustaizko Udalak "El Corral eta La Calzadako gaina" deritzon mendi katalogatuaren zati bati erabilera pribatiboa ematea, herritarren onurarako bada ere, okupazio bat dela eta, beraz, Arabako Lurralde Historikoko Mendiei buruzko Foru Arauaren 24. artikuluan xedatutakoa bete behar duela.

Ulertzen da bateragarria dela egungo okupazioa eta erabilera mendia kalifikatzen duen onura publikoaren xedarekin, betiere proposamen honen xedapen zatian aipatzen diren baldintzak betetzen badira.

Mendiaren jabe den erakundearen borondateari dagokionez (Izarrako kontzejua), ez da jaso Urkabustaizko Udalak gutxienez azken hogeita hamar urteetan konplexu hori okupatu eta kudeatzearen aurka dagoenik, eta hori Mendiei buruzko Foru Arauaren 26. artikuluan xedatutakoa betetz, okupazio kanon bat ezartzeari buruzkoa barne.

Xedapen horiek ikusi dira eta erabat arrazoituta dago egindako proposamena, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 84. artikuluan xedatutakoa betetz.

Prozedura honi Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzien salaren 2017ko uztailaren 5eko 294/2017 Epaia aplikatzen zaio. Epaia horrek, besteak beste, xedatzen du egokia dela administrazio emakidaren figura eta kanon bat ezartzea baso jabari publiko bat okupatzeko kasuan.

Ofizios izapide daitekeen administrazio prozedura mota baten aurrean gaude, ebazteko betebeharra eta horretarako ezarritako epeak betetz.

Espediente hori ebazteko eskumena Nekazaritza Saileko foru diputatuari dagokio, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoak, xedatutakoari jarraituz.

Esandako guztiagatik, eskaera aztertuta eta proiektua mendiaren onura publikoarekin bateragarri dela frogatutzat emanda, martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak, Mendiei buruzkoa, III. kapituluko 24. eta 26. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Ondorioz, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege Araubideari buruzkoak, 40. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrituz eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, honakoa

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Urkabustaizko Udalaren alde onartzea administrazio emakida, Ortuñoko parkeko aisialdi eta kirol konplexuaren okupazioa erregularizatzen duena, "El Corral eta La Calzada gaina" deritzon 89. zenbakidun OPM jabari publikoan, 26.618,41 metro karratukoan.

Bigarrena. Administrazio emakida Urkabustaizko Udalak eta Izarrako administrazio batzordeak azalera eskubide bat formalizatu nahi duten hedadura eta lur berean ematen da, 310 A (20.618,41 m²), 496 (3.516,89 m²) eta 497 (1.669,68 m²) katastro lurzatietan, Urkabustaizko Udalaren eskaeran eta Mendi Zerbitzuaren 2018ko otsailaren 6ko txostenean agertzen den 2008ko urtarrilaren 26ko planoaren arabera. Lurzati horiek Izarra herriarena den "El Corral eta La Calzada gaina" deritzon 89. zenbakidun OPMn sartuta daude; okupazio eremu horretan daude igerilekuak, aldagelak, taberna, futbol zelaia, tenis pista edo balio anitzekoa, zabuak eta haur jolasak eta erretegiak, iturriarekin eta atsedengune arboladun batekin.

Hirugarrena. Administrazio emakida baldintza hauen pean ematen da. Urkabustaizko Udalak eta Izarrako administrazio batzordeak Amurrioko notariotzan sinatutako eskritoretan jasotakoak erreproduzitzen dituzte baldintzok partzialki.

1. Okupazioaren azalera, gehienez, 26.618,41 metro karratukoa izango da, Ortuñoko parkeko konplexuaren instalazioak edo eraikinak dauden eremurako. Instalazio nagusiak igerilekuak, aldagelak, taberna, futbol zelaia, balio anitzeko pista, haur jolasak eta erretegiak dira. Muga hauek dauzka: iparretik, Izarra erreka eta 2:310: A lurzatia bera; hegotik, Parrazar bidea eta aparkalekua; ekialdetik, barruko bidea eta 2:310: A lurzatiaren beraren aparkalekuaren bidea; eta mendebaldetik, errotaren bidea eta Parrazar bidea.

2. Hiru lurzati horien emakidak eragindako azalera Ortuñoko parkeko konplexua eta haren kirol instalazioak mugatzen dituen egungo hesiari dagokiona da.

3. Okupazio epea 75 urtetan ezartzen da. Hura da toki araubidearen legedian ezarritakoa, okupazioari emandako erabilera nagusitzen den heinean.

4. Kanona. Izarrako administrazioak ezar dezakeen kanona gorabehera, urteko 1.894,14 euroko kanona ezartzen da, urtero eguneratu daitekeena, kontsumoko prezioen indizearen arabera.

5. Administrazio emakida honek eraikita dauden eraikin eta instalazioei eragiten die eta, beraz, aurrerantzean ere haien erabilera egungo azpiegituran bermatuko da.

6. Emakidaren xede den eremuaren barruan dauden instalazio eta eraikinen mantentzea, haien birgaitzea edo birmoldaketa emakidadunaren kontura izango da (Urkabustaizko Udala). Ostuñon eraikitako azalera handitzea ez da birgaitze, birmoldaketa edo mantentzetzat joko, mendien arloan eskudun den sailak, salbuespenez, horri buruzko arrazoitutako txostenaren ondoren, kontrakoa erabaki ezean.

7. Erretegiak erabiltzea eta mantentzea. Urkabustaizko Udalak kontserbazio egoera onean eduki beharko ditu sua erabiltzea baimenduta dagoen instalazio guztietan, eta euren erabilerak dakartzan arriskuak minimizatzeko behar diren egokitzapenak egin beharko ditu.

8. Haritzia kontserbatzeko eta parkearen erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko jarduerak. Helburu biak sartu behar dira eremuan emakida honen indarraldian. Zuhaitzen egitura erabiltzaileek gehien erabiltzen dituzten aldeetan erortzeko arriskua egon daiteke, eta emakidak denboran aurrera egin ahala gero eta handiagoa izango omen da arrisku hori, zuhaitzak zahartzean. Horretarako:

8.1. Haritz zaharren zuhaitz egiturak erortzeko arriskuaren ikerketa. Urkabustaizko Udalak bost urtean behin egin beharko du zuhaitzik helduenen kontserbazio egoeraren jarraipena, 2:310: A poligonoko "E" (0,56 ha, haritzia igerilekuen esparruaren barruan) eta "F" (0,29 ha, haritzia erretegien eta iturriaren eremuan) sektoreetan, eguraldi txarraren ondorioz zuhaitzak

erortzeko balizko arriskuak prebenitzen saiatzeko (sektoreak Mendi Zerbitzuaren 2018-02-21eko txostenean zehaztuta daude). Parkean zuhaitz egiturak erortzen direnean, eremu horiek mugatu, seinaleztatu eta balizak jartzeko neurri egokiak hartu beharko dira, bereziki 2:497 eta 2:310: A lurzatietan.

8 2. Haritzia pixkanaka leheneratzea. Emakida honen indarraldian hariztiaren funtzionaltasun ekologikoa leheneratu beharko da, habitat natural gisa, 1,61 hektareatan, gutxi gorabehera, 2.150 metro karratu 10 urtean behin, plangintza hau betez:

– 2028rako: haritzen landatzea amaituta, 89. zenbakidun OPMtik bertatik datorren Quercus robur-en haziarekin, 2:496 lurzati belartzan, haren kimu xamurrak kimatzea gustatzen zaien abereak eta basoko fauna sartzea galaraziz (itxitura jartzea).

– 2035erako: haritzen landatzea amaituta, 89. zenbakidun OPMtik bertatik datorren Quercus robur-en haziarekin, 2:497 lurzati belartzan (dentsitatea sendotzea eta haritzen belaualdi berria ezartzea), haren kimu xamurrak kimatzea gustatzen zaien abereak eta basoko fauna sartzea galaraziz (itxitura jartzea).

– 2040rako: 2:310: A lurzati "A" sektorean dauden platano oinak kentzea eta haritzak landatzea, 89. zenbakidun OPMtik bertatik datorren Quercus robur-en haziarekin, 2:310 lurzati belartzan, haren kimu xamurrak kimatzea gustatzen zaien abereak eta basoko fauna sartzea galaraziz (itxitura jartzea).

– 2045erako: haritzen landatzea amaituta, 89. zenbakidun OPMtik bertatik datorren Quercus robur-en haziarekin, 2:310 lurzati "D" sektorean (haur jolasen eremua), haren kimu xamurrak kimatzea gustatzen zaien abereak eta basoko fauna sartzea galaraziz (itxitura jartzea). Sail hori seinaleztatuko zaie bisitariei hura kontserbatzeak duen garrantziaz ohartarazteko.

– 2080rako: haritzen landatzea amaituta, 89. zenbakidun OPMtik bertatik datorren Quercus robur-en haziarekin, 2:310 lurzati "E" sektorean (erretegien, mahaien eta iturriaren eremua), haren kimu xamurrak kimatzea gustatzen zaien abereak eta basoko fauna sartzea galaraziz (itxitura jartzea). Sail hori seinaleztatuko zaie bisitariei hura kontserbatzeak duen garrantziaz ohartarazteko.

– 2093rako (emakidaren amaiera): haritzen landatzea amaituta, 89. zenbakidun OPMtik bertatik datorren Quercus robur-en haziarekin, 2:310 lurzati "F" sektorean (igerilekuen eremua), haren kimu xamurrak kimatzea gustatzen zaien abereak eta basoko fauna sartzea galaraziz (itxitura jartzea). Sail hori seinaleztatuko zaie bisitariei hura kontserbatzeak duen garrantziaz ohartarazteko.

Laugarrena. Txostenak bost urtean behin bidaltzea.

Emakida indarrean dagoen bitartean, Urkabustaizko Udalak bost urtean behingo txostena aurkeztu beharko die Arabako Foru Aldundian mendien arloan eskudun den sailari eta Izarrako administrazio batzordeari, hirugarren xedapeneko 8. zenbakian haritzia kontserbatzeko eta parkearen erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko xedatutako xedeak lortzeko egindako jardueri buruz, baita hurrengo 5 urteetarako jarduerak planifikatzeko ere. Hala, bost urtean behingo txostenek konplexuan helburu bikoitzari dagokionez ezarritako helburuak noraino bete diren erakutsiko dute.

Bosgarrena. Kanona berrikustea.

Kanona eta horretarako ezarri behar den metodologia berrikusteko, zein xedapen honetan berriaz jasotako beste edozein baldintza aldatzeko, Foru Arau hau aldatu beharko da.

Seigarrena. Okupazio epea beteta, edo administrazio emakida hau onartzean ezarritako erabilera lehenago amaituta, emakida duen titularra, urtebeteko epean gehienez, kirol instalazioak eraitsi beharko ditu eta eragindako lurak (futbol zelaia eta igerilekuen eremua) dagozkion naturalizazio egoeretan leheneratu beharko ditu.

Zazpigarrena. Emakida ezeztatzeko zioak.

Xedapen honetako baldintzak betetzen ez badira administrazio emakida hau ezeztatu ahal da, txosten arrazoituaren eta Arabako Foru Aldundian mendien arloan eskudun den sailak horretarako izapidetutako administrazio prozeduraren ondoren.

Zortzigarrena. Ebazpen hau katalogatutako mendi publikoa okupatzeko tramiteari dagokio, eta ez du salbuesten indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen beste baimenak izapidetu beharretik.

Bederatzi Foru Aginduaren berri emango zaie Izarrako administrazio batzordeari eta Urkabustaizko Udalari, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 41. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hamargarrena. Foru Arau hau onartu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratzen den eguna edozein dela ere.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 14a

Nekazaritza Saileko foru diputatua
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria
M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE